



# MEMORIA

## 2008

Hegoa

Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari  
Buruzko Ikasketa Institutua  
UPV/EHU



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA  
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZIOARTEKO LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA  
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## Bilbao

Zubiria Etxea. UPV/EHU  
Lehendakari Agirre etorbidea, 81  
48015 Bilbao  
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40  
[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

## Vitoria-Gasteiz

Arabako Campus-eko Liburutegia. UPV/EHU  
138 kutxatila - Nieves Cano, 33  
01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel. • Faxa: 945 01 42 87  
[hegoagasteiz@ehu.es](mailto:hegoagasteiz@ehu.es)

## Donostia-San Sebastián

Villa Soroa. UPV/EHU  
Ategorrieta, 22  
20013 Donostia-San Sebastian  
Tel.: 943 01 74 64  
[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

# Aurkibidea

Aurkezpena	4
Prestakuntza eta irakaskuntza	5
Dokumentazio Zentroa	7
Ikerkuntza	9
Sentsibilizazioa	13
Garapenerako Hezkuntza	15
Aholkularitza eta kontsultoretza	17
ART Programa	19
Beste jarduera batzuk	20
Argitalpenak	21
Organigrama instituzionala	25
Txosten ekonomikoa	26

# Aurkezpena

2008ko Jardueren Memoria honen aurkezpenean, zehatz aztertu nahi ditugu urtean barrena egin diren ekimen garrantzitsuenetako batzuk.

Lehenik eta behin, gure figura juridikoa moldatu eta egokitu nahi dugu 2005eko azaroaren 10eko Ebazpenaren bidez onetsi zen Unibertsitateko Institutuen Esparru Erregelamendu berrira. Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Hegoa Institutua harremanetan izan gara 2008. urtean, eta, horren ondorioz, lankidetzaren hitzarmen berria sinatu dugu. Hitzarmen horren bidez, gure institutuaren izaera aldatu da, eta, hala, hemendik aurrera, atxikitako institutua izan beharrean, institutu mistoa izango da. UPV/EHUK 2009ko martxoaren 16an egin zuen Gobernu Kontseiluan onetsi da hitzarmena, eta orain UPV/EHUKo Gizarte Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak onetsi behar dute. Gure zentzatespenen arabera, 2009. urtea bukatu aurretik egingo dute izapide hori.

2008. urtean, buru eman diogu erakundea aldatzeko genero-arloko berdintasunaren aldeko prozesuaren lehen aldiari (COPÉO). Prozesu hori orain dela bi urte jarri genuen abian, kanpoko laguntza izanik, eta, horren bidez, erakundea barrutik ikusi eta haren funtzionamendua aztertu nahi genuen, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko ideiak, jokabideak eta jarrerak oinarritzat hartuta. Prozesu horren bukaeran, azken diagnostikoaren aurkezpena egin genuen, eta hori lagungarria izan zaigu Plan Estrategikoa prestatzeko, eta, orobat, Hegoa Institutuak izango duen genero-arloko estrategiari buruz hausnarketa egiteko eta estrategia bera diseinatzeko. Estrategia horrek aldaketak egin beharko ditu erakundearen barruan, hartara, genero-arloko bazterkeriarik egongo ez dela bermatzeko, eta Institutuaren ekintzek eta esku-hartzeek emakumeen jabeakuntza eta genero aldeko berdintasuna sustatuko dutela ziurtatzeko.

2008. urtean Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzak eta Hegoa Institutuak hitzarmen bat sinatu dute *Guatemalako Garapenerako Lankidetzako Euskal Estrategiaren* esparruan laguntza teknikoa emateko. Ekimen hori oso berritzailea da, eta haren bidez euskal lankidetzak eragin eta inpaktu gehiago izatea lortu nahi da, hartara, aldaketako subjektu estrategikoak osorik indartzeko, eta subjektu horiek berme gehiagorekin egin diezaieten aurre gaur egungo erronkei, hau da, eskubideen ikuspegiatik abiatuta, garapenak lehentasuna izan dezan herrialdeko agenda politikoan.

Bestalde, nabarmendu behar dugu urte honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru aldundiek hala eskatuta, *Lankidetzako Plan Zuzentzailearen* proposamena prestatu dela, eta Hegoa Institutuaren hainbat arlok parte hartu dutela zeregin horretan.

Azkenik, aditzera eman behar dugu berritu egin dela Hegoa Institutuaren eta ART Programaren (Giza garapenerako lankidetzako gaiak eta lurraldeko sareak bultzatzeko programaren) arteko lankidetzaren hitzarmena. Nazioarteko lankidetzako ekimen horrek Nazio Batuen hainbat erakunderen programak eta jarduerak biltzen ditu (PNUD-Nazio Batuen Garapen Programa, UNESCO, UNOPS, UNIFEM eta beste batzuk), eta horien bidez sustatu eta ezagutzera eman nahi dira giza garapenaren eta nazioarteko lankidetzaren arloko praktikak. Hitzarmen horren barruan, Tokiko Giza Garapenari buruzko Baliabideen Web Sistema sortzeko aukera aztertu da. Sistema horren bidez, gaiarekin zerikusia duten baliabideak kudeatu, sailkatu eta aurkeztu nahi dira. Bestalde, programa Euskal Autonomia Erkidegoan zabaltzeko prozesuari lotuta dauden material didaktikoak prestatu nahi dira.

# Prestakuntza eta irakaskuntza

## Titulu ofizialak

### ■ Globalizazioa eta garapena **Masterra**

2008-2009 ikasturtean, Globalizazioa eta Garapena izeneko masterraren bigarren edizioa egin da. Master hau Euskal Herriko Unibertsitatearen titulu ofizialen eskaintzaren barruan dago, eta HEGOA Institutuak eta Ekonomia Aplikatua I eta Ekonomia Aplikatua IV sailek bultzatu dute.

Masterraren xedea ikertzaileen prestakuntza da gehienbat, eta globalizazioaren eta garapeneko proze-

suen artean dauden harremanak hartzen ditu ardatz gisa, betiere, giza garapenaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik aztertuta. Irakaskuntzako proposamen diziplinarreko bat da, eta beste herrialde batzuetan dauden Garapeenari buruzko Ikasketak edo Development Studies deitutakoen tradizioaren barruan dago.

### ■ Garapena eta nazioarteko lankidetzaren **Masterra**

2008-2009 ikasturtean Garapena eta Nazioarteko Lankidetzaren izeneko masterraren bigarren edizioa egin da. Master hau Euskal Herriko Unibertsitatearen titulu ofizialen eskaintzaren barruan dago, eta HEGOA Institutuak eta Ekonomia Aplikatua I eta Ekonomia Aplikatua IV sailek bultzatu dute.

Masterraren xedea ikasleen lanbide-prestakuntza da gehienbat, hain zuzen, nazioarteko lankidetzaren esparruko prestakuntza, eta ekitatea, pobreziaren aurkako

borroka, giza garapena eta iraunkortasuna hartzen ditu funtsezko ardatz gisa. Ikuspegi horretatik abiatuta, kalitatezko lanbide-prestakuntza diziplinarrekoa eman nahi die ikasleei, garapenerako lankidetzaren esparruan errazago sar daitezen. Master honen barruan, praktikaldi bat dago jasota; horrenbestez, ikasleek denboraldi bat eman behar dute Europako, Latinoamerikako, Afrikako edo Asiako garapenerako lankidetzaren esparruko erakunde edo instituzio batean.

## UPV/EHU-ren berezko Tituluak

### ■ Garapenerako lankidetzako estrategiak, eragileak eta politikak **On Line Masterra**

On line master honen seigarren edizioa abian dago honez gero. Haren xedea garapenerako lankidetzaren esparruan lan egiten duten pertsonen prestakuntza eta gaikuntza iraunkorra eta etengabea lortzea da, hala garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeetan, nola instituzio publikoetan, eta estatuko, lurraldeko eta tokiko administrazioetan, bai gure lurraldean bertan, nola gure lurraldetik kanpo.

Masterrak 60 kreditu ditu, horietatik 51 alde teorikoki dagozkie, eta 9, berriz, azken memoria eginez eskuratuko dira. Irakaskuntzako programa 12 modulutan zatituta dago, eta ikasturtearen iraupena 9 hilabetekoa da.

### ■ Immigrazioa eta garapenerako lankidetzaren Europar Batasunean **On Line Masterra**

Graduatu-ondoko on line ikastaro honen laugarren edizioa abian dago honez gero. Europar Batasuneko instituzioei eta zuzenbideari lotutako gaiak aztertzen dituen UPV/EHUko Konstituzio eta Administrazio Zuzenbide eta Zuzenbidearen Filosofia Sailaren eta Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenera buruzko HEGOA Institutuaren arteko lankidetzaren emaitza da. Ikastaroa abian jartzeko, aztertzen diren gaietan adituak diren beste instituzio batzuek laguntza eman dute, besteak beste, hauek: Bartzelonako Unibertsitateko OBREAL behatokiak (Europa - Latinoamerika arteko Harremanen Behatokia) eta UPV/EHUren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (IKUSPEGI), eta estatuko eta nazioarteko hainbat adituk.

Masterrak 60 kreditu ditu, horietatik 57 alde teorikoki dagozkie, eta 3, berriz, azken memoria eginez eskuratuko dira. Irakaskuntzako programa 12 modulutan zatituta dago. Ikastaroaren iraupena 9 hilekoa da guztira.

# Dokumentazio zentroa

Hegoa Dokumentazio Zentroa 1988. urtean sortu zen, eta haren xedea da garapen eta nazioarteko lankidetzari buruz dagoen dokumentazioa eta baliabide biografikoak antolatzea, zaintzea eta ezagutzera ematea. Hegoa Institutua Euskal Herriko Unibertsitateari lotuta dago; eta nazioarteko lankidetzako gizarte-eragileek, ikasleek eta, orobat, irakasleek eta ikertzaileek informazio aldetik dituzten beharrian guztiak bete nahi ditu.

Guztira, 17.500 erregistro bibliografiko baino gehiago ditu, liburuak, erreferentziako lanak, aldizkarietako artikulak, literatura grisa eta multimedia barne hartuta. Informazio hori bost biltegitan antolatuta dago, eta zortzi gai handitan egituratuta dagoen sailkapen-sistema du; hauek dira gaiak: Ekonomia; Garapenerako Lankidetzak; Politika eta Nazioarteko Harremanak; Emakumea eta Garapena; Geografia, Ekologia eta Ingurumena; Giza Eskubideak; Kultura eta Gizartea, eta Informazioa eta Dokumentazioa.

Bibliografiako erregistro guztiak berezko hiztegi edo thesaurus bateko terminologia estandarraren arabera sailkatuta eta kontrolatuta daude. Guztira, 1.100 hitz gako edo deskribatzaile ditu, eta horrek asko errazten du informazioa berreskuratzeko eta trukatzeko lana.

Dokumentazio Zentroak, bertako zerbitzuak edukitzeaz gain (hala nola, kontsulta-, mailegu- eta erreprografia-zerbitzuak), banakako laguntza emateko eta erabiltzaileen ikasketa- edo lanbide-jarduerari laguntza eta prestakuntza emateko zerbitzuak hartzen ditu barne.

Bestalde, zentroak hainbat zerbitzu digital ditu:

**Liburutegi Digitala:** Gaur egun, 17.500 erregistro baino gehiago ditu, behar bezala katalogatuta eta indexatuta. Liburutegi digitala kudeatzeko, zerbitzua errazten duen bilatzaile moderno eta intuitibo bat erabiltzen da. Liburutegi honek 2.000 pdf baino gehiago banatzen ditu, on line dauden irakurgaiak behera kargatzeko aukera emanez.

**Aldizkarien katalogoa:** 170 aldizkaritik gora daude, nazioarteko lankidetzak eta garapenari buruzko gaietan espezializatuak. Katalogo honek laburpen txiki bat du, gaien edukiei buruzkoa eta Hegoa Institutuaren liburutegiko bildumaren egoerari buruzkoa den laburpena. Horrez gain, aukera ematen du erakunde argitaratzailearekin harremanetan jartzeko eta aldizkarian sartzeko –betiere, aldizkaria sarean eskuragarri badago–.

**Erreferentziako obrak:** Erreferentziako obren hautatze-lan bat da (txostenak, urtekariak, estatistikak eta abar), eta erakunde argitaratzailearen arabera antolatuta dago. Horiek guztiak liburutegian kontsulta daitezke, eta haietako askoren testu osoa sarean dago eskuragarri.

**Informazioko baliabideen buletina:** 2008. urtean buletin hauek prestatu dira:

- Informazioko Baliabideen Buletina, 14. zenbakia: Latinoamerika XXI. mendearen hasieran.
- Informazioko Baliabideen Buletina, 15. zenbakia: Erantzukizun sozial korporatiboa eta nazioz haraindiko enpresak.
- Informazioko Baliabideen Buletina, 16. zenbakia: Finantza-krisia eta garapena.
- Jasotako azken aldizkarien (12) hileko buletinak eta kanpoko komunikazioko zerbitzuak: banaketako zerrendak, liburutegiko iragarkiak, informazioaren hautazko zabalkundea aurrez finkatutako intereseko profilen arabera.

Hona hemen 2008. urtean web bidezko zerbitzuek izan duten etekinari buruzko datuak:

- Liburutegi Digitalean ikuskatutako orriak: (225.542) hiru orrialde-zenbaketatik gorako saioetan, sarrera iragankorrak edo akatsez egindakoak kentzeko.
- Liburutegi Digitalean behera kargatutako pdf artxi-boak: (142.684), hau da, behera kargatutako irakurgaiak.

- Web orrian Dokumentazio Zentroari buruz dagoen informazio orokorraren atalean izandako bisitak: (23.175).
- Erreferentziako obren atalean izandako bisitak: (6.293).
- Aldizkarien bildumenaren atalean izandako bisitak: (15.677).
- Gaikako buletin elektronikoen atalean izandako bisitak: (28.711).

Berrikuntzetara hurbiltzeko dugun helburuari jarraiki, nazioarteko hainbat saretan parte hartzen dugu, laguntza ematen dugu praktiketako ikasleak aurkitzeko, ikastaroak egiten ditugu baliabide elektronikoei buruz eta Hegoa Institutuaren web orrian eskuragarri dauden bestelako iturriei buruz, eta bultzada ematen dugu dokumentazio-zentro berriak ager daitezen:

- 2008ko urriaren 2tik 5era, REDIAL-Latinoamerikako Dokumentazio eta Informazioari buruzko Sare Europarraren Batzar Nagusia eta XIX. Biltzarra izan zen Bilbon, Hegoak antolatu baitzuen. Bertan, Europan dauden liburutegi amerikaristik adierazgarrienetako ordezkariak esku hartu zuten.
- UPV/EHUko eta beste zentro batzuetako sei ikaslek praktikak egin dituzte Dokumentazio Zentroan, eta, batez beste, pertsona bakoitzak 300 ordu eman ditu.
- Deustuko Unibertsitateko, UPV/EHUko, Fondo Formación Euskadi-ko eta Basauriko Behargintzako laurogeita hamar ikasle baino gehiago izan dira zentroan, eta prestakuntza teknikoa jaso dute.
- Hegoa Institutua Kubarekin Lankidetzan aritzeko duen Plan Estrategikoaren esparruan, lanean ari da MINVEC ministerioarekin batera, Informazioa Kudeatzeko Zentroa abian jartzeko. Zentro hori

Ministerioaren Gaikuntzako Zentro Nazionalen eraiki nahi da. Bestalde, kultura-kudeaketaren arloan jarduten duen Xabide taldea gurean izan zen, gure egitura eta funtzionamenduen berri izateko, Eusko Jaur-laritzaren giza eskubideen etorkizuneko zentroaren erreferentzia gisa hartzeko.

Bestetik, urte honetan Dokumentazio Zentroak bere gain hartu du Hegoa Institutuaren orri instituzionalaren web masterra kudeatzeko ardura, eta, hala, edukiak prestatzeko eta kudeatzeko lanak egin ditu. Horrez gain, INTRANET instituzionala diseinatu eta abian jarri du. Horrek ezagutzaren barneko kudeaketa jartzen du jardunean, eta 50 lagun baino gehiago dituen talde bati zuzenduta dago.

Zentroak etengabeko loturak ditu dokumentazio-arloan espezializatuta dauden beste erakunde batzuekin, eta eraginkortasunez parte hartzen du espezializatutako biltzarretan eta gaikako ikastaroetan. Hona hemen ikastaro horietako batzuk: *Cambios en la sociedad de la información: web 2.0, Biblioteca 2.0 y administración pública*, SEDIC-Informazio eta Dokumentazio Zientifikoko Espainiako Elkarte, irailaren 22tik 24ra bitartean Madrilen egina; Jornada Revistas de Estudios Latinoamericanos izeneko biltzarra, CSIC-CCHS, abenduaren 1ean egina; eta X. Jornadas de Gestión de la Información del SEDIC: *La dimensión del cambio: Usuarios, servicios y profesionales* izeneko biltzarra, 2008ko azaroaren 20an eta 21ean Madrilen egina (Liburutegi Nazionalen).

Dokumentazio Zentroak UPV/EHUren, Eusko Jaur-laritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren finantziari-laguntza jaso du.



# Ikerketa

2008. urtean, ikerketaren esparrua sendotu duten ekimen garrantzitsuak egin dira Hegoa Institutuan. Alde batetik, *Tokiko Giza Garapenari eta Giza Segurtasunari buruzko Ikerketa Taldeak* egiten duen lanarekin aurrera egiteaz gain, beste bi talde sortu dira, ikerketako proiektu berrien inguruan. Bestetik, ikerketa-batzordea indartuta eta aberastuta atera da, Ekonomia Feministari buruzko ikasketetan aditua den Yolanda Jubeto barnean sartu ondoren. Horrez gain, 2008. urtean, María López Beloso-k berritu du Hegoa Institutuarekin sinatua zuen ikerketa-kontratua, Eusko Jaurlaritzako Ikerlarien Prestakuntzarako Programaren esparruan. Era berean, Miguel González-ek Hegoa Institutuaren Gobernantzari eta Deszentralizazioari buruzko doktorego-tesia inskribatu du, Karlos Pérez de Armiño-ren zuzendaritzapean. Azkenik, aurten, Hegoa Institutuari atxikita dagoen eta UPV/EHUko irakaslea den Juan Hernández-ek doktorego-tesia irakurri du; hau da tesiaren izenburua: *Sistemas de regulación de las empresas transnacionales en el marco de la globalización económica: códigos externos e internos en el ámbito de las relaciones laborales*.

## UPV/EHU-ko tokiko giza garapenari eta giza Segurtasunari buruzko ikerketa taldea (2007-2009)

2008. urtean lanean jarraitu dugu talde honen hiru urteko lan-planarekin. Plan horren xedea honako hau da: Giza Segurtasun eta Tokiko Giza Garapen kontzeptuen azterketa teorikoa areago sakontzea, eta kontzeptu horiek indarkeriaz eta ezegonkortasunez beteriko gatazken ondorioz sortutako krisietan ezartzea –esate baterako, Angola, El Salvador, Bosnia-Herzegovina, Kolonia, Mendebaldeko Sahara edota Kuban–. Laneko plan horretan jasota dauden jardueren artean, besteak beste, hauek nabarmendu behar ditugu: tokiko giza garapenaren ikerketa-ildoaren esparruan eta Bath-eko Unibertsitatearekin lankide-

tzan arituz egin diren mintegiak, eta, orobat, estatuko hainbat ikertzaileekin izandako Giza Segurtasunari buruzko mintegia –gero, gai horri buruzko liburu bat eman da argitara–. Horrez gain, taldeko kideek hainbat biltzarretan parte hartu dute, eta artikulak argitaratu dituzte aldizkari espezializatuetan.

**Lan-taldea:** Karlos Pérez de Armiño (ikertzaile arduraduna), Alfonso Dubois, Irantzu Mendia, María López, Luis Guridi, Eduardo Bidaurrezaga, Juan Carlos Pérez de Mendiguren.

## Ikerketako proiektuak

### Gerren eta gizarte eta ingurumeneko gatazken dimentsio psikosoziala, komunitarioa eta genero-arlokoa: giza eskubideak, nazioarteko laguntza eta bakearen eraikuntza

Proiektu honek Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzako Funtzaren (FOCADen) finantziazioa jaso du, 2007-2009 denboraldiari dagokiona. Hainbat ikerketa-ildo ditu, eta lehenbiziko urte honetan jarduerak hauek egin dira:

*1. Konponketa lortzea gizarte eta ingurumeneko gatazka-egoeretan. Texaco enpresaren petrolio-jarduerak Ekuadorreko amazonian eragin duen inpaktua.* 2008. urtean ikerketa hori bukatu, eta azken txostena prestatu zen; txosten hori 2009. urtean emango da argitara. Teknika kuantitatibo eta kualitatibo jakin batzuk oinarritzat hartuta, Texaco enpresak petrolio erauzteko egindako jarduerak Ekuadorreko amazoniako erkidego indigenen eta mestizoen artean izan duen inpaktu psikosoziala aztertu zen.

*2. Latinoamerikako indarkeriazko gatazketan giza eskubideen urratzeak jasan dituzten biktimekin egindako lanean dagoen dimentsio psikosoziala.* Kasu honetan, ikerketa prestatu zen, eta lehen bilerak egin ziren Latinoamerikan giza eskubideen urratzeak jasan dituzten biktimei laguntza ematen lan egiten duten eta Erdialdeko Amerikakoak, Brasilgoak edota Estatu Batuetakoak diren pertsonekin eztabaidatzeko.

*3. Gerra ondoren birgaitzea eta bakea eraikitzea, genero-ikuspegitik.* Ido honetan, gatazkei eta bakeari buruzko azterketak –bereziki, gerra ondoren birgaitzeko eta bakea eraikitzeko dimentsioen azterketak– genero-arloko azterketekin lotzen dituen esparru teorikoa prestatzen lan egin zen.

*4. Garapenerako lankidetzaren, ekintza humanitarioaren eta bakearen eraikuntzaren arteko harremana.* Lan-ildo honen esparruan, nabarmendu beharra dago Hegoa Institutuak Udako Nazioarteko Eskola antolatua zuela, European Association of Development Research and Training Institutes elkartearen (EADIren) lankidetzaz, hain zuzen, “Perspectivas recientes sobre Cooperación al Desarrollo, Paz y Conflicto” izeneko eskola. Eskola hori irailaren 8tik 12ra bitartean izan zen, bertan maila altuko hainbat unibertsitateko, eta estatuko eta Europako institututako irakasleak izan ziren, eta Europako, Latinoamerikako eta Afrikako ikasleak bertaratu ziren.

**Lan-taldea:** Carlos Martín Beristain, Irantzu Mendia, Karlos Pérez de Armiño eta Gloria Guzmán.

### Euskal lankidetzaren esparru instituzionala: genero-arloko ekitatearen aldeko lana indartzeko eta tokiko espazioan parte hartzeko aukera

Ikerketa honek Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzako Funtzaren (FOCADen) laguntza jaso du, 2008-2010 denboraldiari dagokion laguntza. Ikerketa egiteko ardurua Hegoa Institutuaren inguruko diziplina askotako talde berri baten esku dago, eta lanaren helburua hau da: euskal lankidetzaren esparru instituzionala aztertzea, ardatz estrategikoak sendotzeko, esate baterako, deszentralizazioa sendotzeko, eta tokiko garapenerako prozesuak genero-ikuspegitik bul-tzatzeko. Laguntzaren arauzko eta instituzioko espa-

rruaren azterketa teorikoa egiteaz gain, lau kasu azter-tuko dira: Ekuador, Peru, Guatemala eta Mendebal-deko Sahara. 2008. urtean, prestakuntzako bilerak egi-ten hasi ziren, ikerketan ezarriko diren tresna meto-dologikoak diseinatzeko eta prestatzeko.

**Lan-taldea:** Yolanda Jubeto (ikertzaile arduraduna), Mertxe Larrañaga, Jokin Alberdi, María López, Unai Villalba, Miguel González eta Gloria Guzmán.

## Euskal Autonomia Erkidegoan garapenerako lankidetzako politika publikoen

Ikerketa hau 2008. urtean hasi zen, eta bi urteko iraupena du. Hegoa Institutuaren inguruan dagoen diziplina askotako beste talde bat arduratzen ari da lana egiteaz, eta haren xedea hau da: Euskal Autonomia Erkidegoan azken 20 urteetan izan diren garapenerako politiken bilakaera aztertzea, besteak beste, euskal lankidetzaren bereizgarriak diren osagaiak aztertuz, edota ardura duten instituzio-politi-

ken xedeei jarraiki egin diren ekintzen pilatze- edo barreiatze-maila ikerituz.

**Lan-taldea:** Koldo Unceta (ikertzaile nagusia), Eduardo Malagón, Jorge González, Idoie Zabala, María José Martínez, Marian Diez, Michel Sabalza eta Clara Murguialday.

## Birmoldatzeari, elikagaien burujabetzari, generoari eta iraunkortasun ekologikoari buruzko ikerketak garatzea

Habanan eta Kubako mendebaldeko eskualdetan Ikerketa, Gaikuntza eta Laguntza Teknikoa emateko Kanpoko Inbertsio eta Lankidetzako Ministerioak (MINVEC-ek) eta Eusko Jaurlaritzak sinatu duten Hitzarmenaren barruan, 2008. urtean hiru ikerketa egiten jarraitu da:

- Kubako ekialdeko eskualdeetan azukrea birmoldatzeko prozesuko produktuen merkatu-azterketa. Ikerketa/azterketa honen helburu nagusia da ondo jakitea Kubako ekialdeko eskualdeetan sektore turistikoan inportatutako produktuen kontsumoan dauden beharrezkoak zein diren, hartara, produktu horietako batzuk ordezkatu ahal izateko, eskualde horretako azukre-sektorea birmoldatzeko prozesuan sortzen diren enpresa-ekimenen bidez, eta, horrenbestez, behar den laguntza ematea proiektu horiek bideragarriak izan daitezen, eta tartean dauden biztanleek elikagai aldetik laguntzarik behar izan ez dezaten. Enpresa Kudeaketako Azterketa Zentroa. Holguin-eko Unibertsitatea.
- Kubako ekialdeko eskualdean elikagai aldeko burujabetza bermatzeko behar diren elikagaien ekoizpen-gaitasunei buruzko azterketa: CAI MACEO nekazaritza-industriako gunea. Birmoldatzen ari diren

CAI edo nekazaritza-industriako gunen batzuetan (MACEO) oinarrizko elikagaiak ekoizteko duten gaitasuna zen den jakin nahi da. Era berean, horko biztanleek kontsumo aldetik dituzten beharrezkoak zein diren jakin nahi dira, aztergai den biztanleriak elikagai aski izango duela bermatzeko. Bestalde, bereziki nabarmendu nahi dira ingurumen- eta genero-arloekin zerikusia duten alderdiak. Julio Noliberto Pérez Guerrero guneko zuzendaria. Kargua: Nekazaritza-ekosistema Lehorretarako Ikerketa Guneko (CEAAR-eko) zuzendaria. Holguin-eko Unibertsitatea. Kuba.

- Kubako ekialdeko eskualdeetan azukrea birmoldatzeko prozesuan izan diren esperientziak sistematizatzea. Ikerketa/azterketa honen helburu nagusia da Kubako ekialdeko eskualdean azukrearen sektorea birmoldatzeko dauden ekimen guztiak biltzea eta aztertzea, eta bereziki nabarmentzea ingurumen- eta genero-arloekin zerikusia duten alderdiak, hartara, betearazteko prozesuan ezarri diren prozesuei buruzko informazio antolatua eta sistematizatua izateko, ondorioak ateratzeko, eta, orobat, herrialdeko beste leku batzuetan etorkizunean egiten diren ekimenetarako ikaskuntza gisa baliatzeko. CECI. Holguin-eko Unibertsitatea.

## Ikerkuntzako mintegiak

UPV/EHUK eta Nazioarteko Lankidetzarako Estatuko Idazkaritzak (SECI-k) hitzarmen bat sinatu zuten, *Espainiako lankidetzako doktrina-jarrera sendotzeko lagungarriak diren lanak egiteko hitzarmena* izenekoa, eta Hegoa Institutua arduratu zen hitzarmen hori

betearazteaz. Hitzarmen horretan jasota dauden ikerkuntzako mintegi gehienak 2008. urtean egin ziren.

- **Gobernantza, garapena eta nazioarteko lankidetzaren** (urtarrilaren 24a-25a). Mintegi honen xedea hau-

xe izan zen: gobernantzari buruz gaur egun dauden eztabaidak ikuspegi kritiko batetik aztertzea, eta garapenarekin eta nazioarteko lankidetzarekin duten harremana ikertzea.

- **Mikrofinantzak** (ekainaren 12a). Mintegi honen helburua hauxe izan zen: mikrofinantzak pobrezari aurre egiteko finantza-tresna gisa izan dezakeen indarra eztabaidatzea eta aztertzea, eta garapenerako lankidetzako proiektuetan tresna gisa baliatzea, ikuspegi eta ikusmolde desberdinetatik abiatuta.
- **Enpresa-arriskua eta gizarte-arriskua** (ekainaren 19a). Mintegi honetan herrialde-arrisku kontzeptuak dituen dimentsioak aztertu ziren. Gaur egun, testuinguru makroekonomikoen eragina nabarmentzen da inbertsioen portaeran. Horiek horrela, hori kritikatu ondoren, giza segurtasunari lotuago dauden beste ikuspegi batzuk balioetsi ziren, bai eta testuinguru horiek pertsonen bizitza-baldintzetan dituzten ondorioak ere.
- **Eraginkortasun soziala eta garapenerako gobernu kanpoko erakundeak. Auditoretza sozialaren aukerak eta mugak** (ekainaren 26a). Mintegi honen xedea

hauxe izan zen: garapenerako gobernu kanpoko erakundeen esparruko auditoretza sozialari buruz eztabaidatzea, inpaktua neurtzeko beharrak dakartzan erronkak eta aukerak aztertzea, eta haren lanaren eraginkortasuna balioestea.

- **Giza segurtasuna, oinarri teorikoak eta aplikazioak** (ekainaren 30a-uztillaren 1a). Mintegi honetan giza segurtasunak hainbat alderdirekin duen lotura aztertu zen, zehazki, babesteko erantzukizuna, giza eskubideen ikuspegia, ekintza humanitarioa, Europar Batasuneko eta Nazio Batuetako giza segurtasunerako politikak bezalako alderdiekin duen lotura. Era berean, kontzeptu horren neurketan izan diren aurrerapenak ikertu ziren.
- **Taldeko prozesuak eta ongizatea. Proposamen metodologikoak tokiko giza garapena aztertzeko** (urriaren 24a-25a). Mintegi honen ardatza ongizatea neurtzeko alderdi metodologikoak lantzea izan zen; horretarako, tokiko testuinguruetan erabiliko adierazleak eta tresna gakoak azaldu ziren.

## Prestakuntza eta eztabaidarako guneak

2008. urtean lanean jarraitu zen Hegoa Institutuko langileak eta atxikitako irakasleak gaitzeko eta prestatzeko ekimen honekin. Zehazki, 2008. urtean lan hauek egin ziren: Dokumentazio Zentroko prestakuntza eta dokumentazioko baliabideetarako sarbidea (Itziar Her-

nández), María López eta Irantzu Mendiaren doktorego-tesien aurrerapenak sozializatzea, nazioz haraindiko enpresen kontrol-sistemak (Juan Hernández), marxismoa eta garapena (Bob Sutcliffe) eta kapitalismoaren krisiaren analisisa (Patxi Zabalo).

## Ikerkuntzako sareetan parte hartzea

2008. urtean, Hegoa Institutuak sakonago hartu zuen parte estatuko eta Europako hainbat ikerketa-sareetan. Bereziki EADI elkar-tearekiko harremana indartu zen, Hegoa Institutuak elkar te horren Udako Nazioarteko Eskolaren 4. edizioa antolatu baitzuen (aurreko edizioetan Geneva, Twente eta Pragan egin zen).

Horrez gain, indartu den beste sareetako bat honako hau da: Hegoa Institutuak Coimbra Unibertsitateko

Bakearen Ikasketen Gunearekin (NEP-ekin) eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ikasketa Afrikarren Taldearekin (GEA-rekin) eratzen duen sarea, 2008-2009 biurtekoan Eusko Jurlaritzaren laguntza izango duena. Azkenik, 2008. urtean, nabarmen agertzen da REAS Euskadi eta Hegoa Institutuak ekonomia sozial eta solidarioaren esparruan lankidetzatza estutzeko duten hitzarmena.

# Sentsibilizazioa

## 1. Generoa Garapenerako Hezkuntzan.

### Emakumeen agenda politikorako Ipar-Hegoa eztabaidagaiak (I. Aldia)

Proiektu honek bi urteko iraupena du (2007-2008), ACSUR-LAS SEGOVIAS-ekin batera garatzen ari da, eta Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritzaren eta Nazioarteko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren finantziazioa jaso du.

Proiektu honen bidez, lankidetzari eta garapenerako hezkuntzari lotuta dauden eragileak indartu nahi dira, genero-ekitatea giza garapenerako auzi nagusizat har dezaten lortzeko, eta, hortaz, genero-ikuspegia eragin-kortasunez sar dezaten, hala lankidetzaren nola hezkuntza-arloan egiten dituzten jardueretan.

2008. urtean, jarduera hauek egin dira:

#### a. Mintegia. Gatazka-egoeran dauden emakumeak.

Otsailean bi mintegi izan ziren, Bilbon eta Bartzelonan. Biltzeko eta hausnarketa egiteko gunea hiru bileratan egituratu zen. Haren bidez helburu hauek lortu nahi ziren: gerra ondoren birgaitzeko edo bakea eraikitzeko prozesuetan emakumeen zeregina ikusgai jartzea; emakumeen aurkako indarkeria gizonen emakumeekiko duten menderakuntza, botere eta kontrolaren adierazpena dela onartzea (teoria feminista); sexu-indarkeria gizarte guztiei dagokien –batez ere estatuei dagokien– gai publikotzat jotzea; eta ikuspegi kritikoa izatea garapenerako eta nazioarteko lankidetzako ekimenei buruz.

Horretarako, Latinoamerikako erakunde feministek emakumeak izan ziren gure artean: Fabiola García Galán, Giza Eskubideen Legezko Ekintzarako Zentroko Komunikazio Unitateko koordinatzailea (Guatemala); eta Claudia Cecilia Ramírez, Sisma Mujer Korporazioaren Arlo Juridikoko koordinatzailea (Kolonbia). Era berean, Hegoa Institutuko Irantzu Mendia ikertzaileak parte hartu zuen. Mintegiari buru emateko, bi mahai-inguru izan ziren: bat, mugimendu feministako erakundeekin, eta, bestea, garapenerako gobernu kanpoko erakundeekin.

#### b. Emakumeen giza eskubideak gatazkan eta gatazka ondoren: Kolonbia eta Guatemala, izenburuko bi hitzaldi izan ziren, Bilbon eta Bartzelonan. Bestalde, nabarmendu behar da Hegoa Institutuko Garapen

eta Nazioarteko Lankidetzako Masterreko ikasleek egin zutela Bilboko hitzaldia. Proiektua aurkezteko eta aztergai ditugun gaien inguruan sentsibilizazioa sustatzeko, postal batzuk argitaratu eta banatu ditugu. Postal horiek gatazka-egoeretan dauden emakumeen gaia aipatzen dute.

#### c. Generoa Garapenerako Hezkuntzan: estrategia politikoak eta metodologikoak.

Garapenerako Hezkuntzaren esparruan ahalegina egin dugu genero-ikuspegia barne hartzeak duen esanahi teorikoa, politikoa eta praktikoa ulertzeko. Ildo horretan proposatu dugu, alde batetik, garapen-ereduaren eta mundu-mailako arazoaren irakurketa berria egitea, indarrean dagoen sexu-generoko sistematik abiatuta, eta, bestetik, proposamen politikoak egitea, hierarkia patriarkalarekin bukatzeko eta ekitatean oinarritzen diren nortasunen berreraikuntzaren aldeko jarduteak bultzatzeko.

Xede horretarako, bi ikastaro teoriko-praktiko antolatu genituen (Bilbon eta Bartzelonan). Horien bidez, garapenerako gobernu kanpoko erakundeek gaikuntza eman nahi genien estrategia politikoei ekiteko, eta, orobat, tresna pedagogikoak eskaini nahi genizkien, eta esku hartzeko proposamenak egin nahi genituen, Garapenerako Hezkuntzaren esparruan genero-ikuspegia barne hartzeko. Honako hauek izan ziren bilera horietako hizlariak: Juanjo Celorio, UPV-EHUko Gizarte Zientzien Didaktika Saileko irakaslea eta Hegoa Institutuko Garapenerako Hezkuntzako taldeko kidea; Inma Cabello, Garapenerako Hezkuntza eta Genero arloan aditua, eta Gatazkako Alderdietako Emakumeen Garapenerako Hezkuntzaren arloko arduraduna; Llum Pellicer, Baterako hezkuntza eta Generoko aholkularia; eta Alicia Rodríguez, Genero eta Garapen arloan aditua. Argitalpen bat aterako da, ikastaroan aurkeztutako gai guztiak bilduta.

#### d. Garapenerako Hezkuntzako materialak argitaratzea:

• *Emakumeen eskubide ekonomikoak: gogoetak, ikuspegi feministatik.* Bilbo, 2008. (Euskaraz, katalanez eta gaztelaniaz argitaratua)

• *Emakumeen eragin politikoa eta partaidetza: gogoetak, ikuspegi feministatik.* Bilbo, 2008. (Euskaraz, katalanez eta gaztelaniaz argitaratua).

- **Gatazka-egoeretan dauden emakumeak: gogoetak, ikuspegi feministatik.** Bilbo, 2008. (Euskaraz, katalanez eta gaztelaniaz argitaratua).

Argitalpen horiek *Generoa Garapenerako Hezkuntzan: Iparra-Hegoa eztabaida-gaiak emakumeen agenda politikorako* izeneko proiektuaren barruan daude. *Emakumeen eskubide ekonomikoak* (Bilbo eta Gijon, 2007ko maiatza eta ekaina); *Emakumeen eragin politikoa eta partaidetza* (Murtzia eta Madril, 2007ko azaroa); eta *Gatazka-egoeretan dauden emakumeak* (Bilbo etaartzelona, 2008ko otsaila) izeneko mintegiak egin ziren. Horren ondoren, argitalpen horietan jaso dira taldean egindako lanari buruzko hausnarketak, ikuspegi feministatik abiatuta egindako proposamenak, eta ekarpen nagusiak, genero-ekitatea barne hartuko duen garapenari buruzko eztabaidan sakontzeko eta hari jarraipena emateko aukera emango digutenak.

- e. **Espazio kritiko feminista. Latinoamerikako emakumeen erakundeen eta garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen arteko aliantzak izeneko monografia argitaratzea.** Bilbo, 2008. (Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratua).

Argitalpen honen bidez, sakonago aztertu nahi dugu Latinoamerikako emakumeen egoera, hiru gai-ardatz hauek oinarritzat hartuta: emakumeen eskubide ekonomikoak; gatazka armatuak generoko harremanetan duen eragin txarra gutxitzea eta emakumeek bakearen eraikuntzaren esparruan egiten duten ekarpena; eta emakumeen partaidetza eta eragin politikoak.

Ahalegina egin dugu gai horietara hurbiltzeko, ikuspegi feminista batetik abiatuta. Ildo horretan, Latinoamerikako herrialde batzuetako egoera azaldu eta aztertu dugu, emakumeen historia eta emakumeen eskubideen bilakaera aintzat hartuta, eta, emakumeen giza eskubideak lortze aldera, Hegoko erakunde feministek egiten dituzten jardunbide egokiak eta esperientziak ezagutzera emanda.

Argitalpen honen arabera, erronka nagusia hau da: arlo guztietan antolatzeke era eta estrategia berriak azaltzea, hartara, gobernuak eta nazioarteko lankidetzak konpromisoak beren gain hartu eta abian jar ditzaten, genero-arloko berdintasunarekin aurrera egiteko, betiere, emakumeen eskubideei buruzko kontzeptuak berriz argituz eta oraingo garapen-ereduari buruz ikuspegi kritikoa izanda.

Proiektuak orain arte sortu dituen materialak Bantaba web orrian daude eskuragarri: ([www.bantaba.ehu.es](http://www.bantaba.ehu.es))

- f. **Bantaba web gunean jasotako ikastaroak:**

Las mujeres y la economía. Hemen dago eskuragarri: [www.bantaba.ehu.es/formarse/fcont/mujecon/](http://www.bantaba.ehu.es/formarse/fcont/mujecon/)

Derecho de asilo y persecución por motivos de género. Hemen dago eskuragarri:

[www.bantaba.ehu.es/formarse/fcont/asilogen/](http://www.bantaba.ehu.es/formarse/fcont/asilogen/)

Generoa Garapenerako Hezkuntzan: estrategia politikoak eta metodologikoak. Hemen dago eskuragarri: [www.bantaba.ehu.es/formarse/fcont/genened/](http://www.bantaba.ehu.es/formarse/fcont/genened/)

## 2. Ikastaroak, solasaldiak eta hitzaldiak

Genero eta garapenari buruzko hainbat ikastaro izan da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Genero Programaren esparruan, eta Mugarik Gabe Nafarroa eta Bilboko Udalak antolatu dituzten horietan.

## 3. Sareetan eta koordinakundeetan lankidetzan aritzea

Sentsibilizazio Arloa lankidetzan aritzen da Harresiak Apurtuz koordinakundearen Komunikazio Arloarekin. Aurten INMIGRART erakusketa antolatu du, hau da, emakumeek ekonomiari egiten dion ekarpenari buruzko argazki-erakusketa bat. Horrez gain, "World-Café" bat ere antolatu du, komunikabideek gutxiengoei zer nolako tratamendua ematen dieten eztabaidatzeko.

# Garapenerako Hezkuntza

2008. urtean, buru eman diogu Herritartasunerako Hezkuntzari buruzko ikerkuntza eta prestakuntzako proiektuaren lehen aldiari. Era berean, programa europar bat jarri dugu abian; programa horrek hiru urteko iraupena izango du, 2008tik 2010era bitartean.

## Herritartasun globalerako hezkuntzari buruzko ikerkuntza, eztabaidak eta esperientziak. Mundubildu (I. aldia).

Proiektuak Eusko Jaurlaritzaren eta AECID-en finantziazioa jaso du, eta barne hartu ditu Garapenerako Hezkuntza, Herritartasunerako Hezkuntza eta Kultura arteko Hezkuntzari lotutako ikerkuntza eta prestakuntzako jarduerak. 2008. urtean jarduera hauek egin dira, eta I. Aldian finkatutakoari jarraiki egin ere (2007-2008):

### a. Mintegi presentziala. Herritartasun kritikoa eraikitzen. Hezkuntzaren inguruko eztabaidak eta esperientziak.

Mintegi honetan, 39 laguneko talde bat bildu zen, eta tartean lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleak, Berritzeguneko aholkulariak, gurasoen elkarreak, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeetako kideak, eta gizarte-mugimenduetako kideak izan ziren. Zazpi bileretako bakoitzak 4 orduko iraupena izan zuen. Bilera horietan eztabaida teorikoak eta esperientzia praktikoak aztertu ahal izan dira, betiere, hezkuntzako gune kritikoa, komunitarioak eta barneratzaileak lortzeko asmoz. Urte honetan lau bilera hauek izan dira:

- Herritartasunaren eskola. Kultura arteko gatazken kudeaketa demokratikoa. Juan Gómez (Amani taldea).
- Zentroko hizkuntza-proiektua. Zentroko hezkuntza-proiektua. Xabier Mujika (Orokietta-Zarautz LHI) eta Lorea Aretxaga (Mungiako BHI).
- Gizarte-eragileen eginkizuna. Hezkuntza noren erantzukizuna da? Ramón Flecha (CREA-Bartzelona Unibertsitatea).
- Diagnostikoa berrirakurtzea eta esku hartzeko ildoak. Teresa Aguado (UNED).

### b. Hezkuntzari buruzko hitzaldien zikloa. Vitoria-Gasteizko Hikatenoa. Dibulgazioko hitzaldiak antolatu

genituen, hilean behin, jende guztiari zabalik. Zikloa aurreko urtean hasi zen, eta hauek izan ziren buru eman zioten hitzaldiak:

- Herritarren hezkuntza. Gizarteen eta kulturen mugetatik harantz. Juan Gómez (Amani taldea).
- Zein hizkuntza-eredu behar dugu guztiona den eskola lortzeko? Josean Bueno Sáez de Albeniz (Koldo Mitxelena BHI).
- Arrazakeria eta hezkuntza. Zer den eta nola egin ahal diogun aurre. Teresa Aguado (UNED).

### c. On line mintegia. Herritartasun kritikoa eraikitzen. Hezkuntzaren inguruko eztabaidak eta esperientziak izeneko.

Mintegi birtual honek mintegi presentzialak dituen helburu pedagogiko berberak izan ditu. 2007ko abendutik 2008ko maiatzera bitartean izan zen, eta guztira 21 lagunek hartu zuten parte. Horietako gehienak ikastetxeetako langileak edo hezkuntza-elkarteetako kideak izan ziren. Vitoria-Gasteizko Saregune-rekin lankidetzan arituta, plataforma birtual bat ([www.mundubildu.org](http://www.mundubildu.org)) prestatu genuen, eta, bertan, on line prestakuntza bultzatzeko ikus-entzunezkoak eta dokumentalak jaso genituen.

### d. Garapenerako Hezkuntza eta Herritartasunerako Hezkuntzari buruzko txostena.

Hezkuntza-taldeak txosten bat prestatu du, eta bertan legegintzako esparru berriak (Hezkuntzako Lege Organikoak) Garapenerako Hezkuntza barne hartzeko eskaintzen dituen aukerak aztertu ditu. Herritartasunerako Hezkuntzari buruz egin den proposamenaren irakurketa kritikoa egin da. Izan ere, zeharkako ikuspegia bultzatzea erabaki da, era horretan, orain dagoen ikuspegi inozoa gainditzeko eta, beraz, ikasle-en prestakuntza demokratikoa eta solidarioa ematea ikasgai bakar baten ardura izan ez dadin lortzeko. *Herritartasun Globalerako Hezkuntza. Eztabaidak eta erronkak* izeneko txostena euskaraz eta gaztelaniaz eman da argitara.

### Amanda Plataforman parte-hartzea

Sare honek hainbat pertsona eta talde biltzen ditu, zehazki, Vitoria-Gasteizko kultura arteko bizikidetzari buruz dituzten ideiak, ikuspegiak eta esperientziak par-

tekatu nahi dituzten pertsonak eta taldeak. Plataforma horretan hiriko Alde Zaharreko arlo desberdinetako pertsonak eta lan-proiektuak bateratu dira. Denek dute zerikusia babesik gabe dauden eta desberdintasuneko egoeran auzora iritsi diren etorkinei harrera egiteko eta pertsona horiek gizar teratzeko prozesuarekin. 2008. urtearen bukaeran, talde osoak *Amanda* esperientziaren sistematizazio-lana egin du, eta lan hori aurreko paragrafoan aipatu dugun txostenean eman da argitara.

### Partnership for change

Europako garapenerako gobernu kanpoko bost erakunde bultzatzen dute proiektu hau; honako hauek: Amici dei Popoli (ADP, Italia); Centro di Educazione Sanitaria e Tecnologie Appropriate Sanitarie (CESTAS, Italia); Reading International Solidarity Centre (RISC, Erresuma Batua); Centrum Voor Mondiaal Onderwijs (CMO), Nimega-ko Radboud Unibertsitatekoa (Hollanda); eta HEGOA (Euskal Herria-Espainia). Proiektuak Europar Batasunak Afrika, Karibe eta Pazifiko aldeko herrialdeekin (ACP) sinatu nahi dituen elkarke-ta ekonomikorako akordioei buruzkoa da (*Economic Partnership Agreements*, EPA). Proiektuaren helburua hau da elkarketa ekonomikorako akordioek Hego-eko ekonomietan eta gizarteetan duten irismenari eta inpaktuari buruzko ezagutza handitzea, eta ekintzak egitea eragin politikoa izateko, hartara, Europako Parlamentuak eta gobernuak Hego-eko gizarte zibilak dituen eskakizunak kontuan izan ditzaten eta akordio horien berrikuspen kritikoa egin dezan.

